

2010ko apirilak 28 Lan-osasun eta segurtasunaren eguna

Lan osasuna, finantziario iturri

Lan osasun eta segurtasunaren egoera ez da hobetu. 2009an Hego Euskal Herrian lan-istripuz 85 pertsona hil ziren (68 EAEn eta 17 Nafarroan); 49054 langilek jasan zuten baja eragin zuen ezbeharren bat.

Zergatik ez da ezer aldatzen? Gobernuak eta ugazabak bat datozelako kolokako enplegua hedatzen duen lan-harremanen eredu jakin bati buruz. Gainera, eredu horren arabera administrazioak ez du ezer egiten aldi baterako kontratuetan izan ohi den iruzurra desagerrarazteko, eta azpikontratazioa neurrigabe erabiltzen da, baita herri-lanetan ere.

Lan istripuen sakoneko zergatien arabera jokatzeko eta gaixotasun profesionalen arazoa konponbidean jartzeko patronalaren interesen aurkako erabakiak hartu behar dira. Haatik, administrazioak (Lan Ikuskaritzak eta Nafarroako Lan-Osasuneko Erakundeak) bere eginbeharra saihesten du eta ez du ia inoiz deus egiten, edo egiten duenean, oker jokatzeko du.

Beraz, Nafarroako Gobernuaren kezka nagusia betiere ugazaben pribilegioak defenditzea da, ez legea betearaztea edota lanpostu seguru eta osasungarriak bermatzea. Egungo egoera gairatzeko borondate politikorik ez dauka. Gobernuaren eta patronalaren artean ez dago inongo gatazkarik, eta interesetan bat datoz guztiz.

Gai honetan ere nafar gobernuak "elkarrizketa soziala" delakoari ematen dio lehentasuna, eta Laneko Segurtasun eta Osasuneko Kontseilu nafarra haren zerbitzutan jartzen du. Erakunde honetan dagoeneko bete-betean somatzen da elkarrizketa sozialeko adostasuna. Kontseilu hau informazioa banatzeko besterik ez da; bere bilerak ordubete eskasean bukatzen dira; ez da eragingarria, formala baizik, eta kritikak, edota adostasunetik aldentzen diren ekarpen edo iritziak (ELAren kasu) ez dira aintzat hartzen, inondik ere.

Arauek besterik badiote ere (lau bilera egin beharra), Kontseilua urtean behin bakarrik biltzen da, eta funtsezko erabaki bat besterik ez da hartzen, CENi, CC00ei eta UGTri lan-arriskuen prebentziorako Fundaziotik etorritako dirua banatzea, prestakuntza arlorako: 2009an aipatutako erakunde bakoitzak 164.000 jaso du horri esker.

Lan-osasuneko Erakundeak, berriz, Kontseilua gorabehera, Espainiako Lan-osasun eta -segurtasunerako Estrategian ezarritakoa besterik ez du aplikatzen, Estatuan erabakitako politiken zerbitzari bihurtuta.

Baina hori ez da guztia. Nafar Gobernuaren 2010rako aurrekontuan lan-arriskuen prebentziorako 1.532.500 euro bideratu dira, 662.500 Foru-Erkidegoko delegatuentzat eta gainontzeko 870.000 euroak, prebentzio egitasmoetarako.

Delegatu eta egitasmo horiek egoera hobetzeko eta prebentzioaren kontzientzia hedatzeko omen dira, baina zeintzu dira benetako emaitzak? Ez dago horren inguruko informaziorik; edo ez digute ematen. Baina prebentzioaren ikuspegitik, urteotan ez da ezer aldatu. Beraz, ezer ez eta betiko kontua: ez dago benetako ikuskaritzarik, eta iruzurra ez da borrokatzen. Bai, ordea, baliabide publikoetatik ordaindutako finantzazioa.

Elkarrizketa mahaiko partaide guztiak ados daude eredu honekin, ondorioz Osalan edukiz hustuagatik eta prebentzioa baztertuagatik ere.

Aurtengo apirilaren 28an ELA eskari argi bat plazaratzen du: Lan osasun eta segurtasuneko politika publikoak goitik behera alda daitezela. Izan ere, politika horiek enpleguaren prekarietatea borrokatu behar dute, eta langile-klasearentzat lanpostu duin eta egokiak bermatu behar dituzte. Ez dugu onartuko gure segurtasuna eta osasuna enpresen etekinen menpeko zerbait izaterik.

**STOP al negocio
con nuestra salud**

ELA
EUSKAL SINDIKATUA

Lan osasuna, finantziazio iturri

La situación en materia de seguridad y salud no mejora. En Hego Euskal Herria en 2009, 85 trabajadores y trabajadoras perdieron la vida (68 en la CAPV y 17 en Nafarroa) como consecuencia de un accidente de trabajo. Un total de 49054 trabajadores y trabajadoras sufrieron un accidente de trabajo con baja.

La razón para que nada cambie es que los Gobiernos y la patronal están de acuerdo en impulsar un modelo de relaciones laborales extendiendo la precariedad, un modelo en el que la administración no persiga el enorme fraude de ley en la contratación temporal y en el que la subcontratación reine sin control, incluso en la obra pública.

Para superar las causas estructurales de la siniestralidad y avanzar en la solución a la problemática de las enfermedades profesionales es imprescindible adoptar medidas que vayan en contra de los intereses de la patronal. Sin embargo, la Administración (Inspección de Trabajo e Instituto Navarro de Salud Laboral) renuncia a su cometido y actúa poco y mal.

Así, el Gobierno de Navarra demuestra estar más preocupado por defender los privilegios de la patronal que por hacer cumplir la Ley y garantizar unos puestos de trabajo seguros y saludables. No hay ningún interés político en superar esta situación. La confrontación entre Gobierno y patronal es nula y la conjunción de intereses entre ambos es total.

La opción del Gobierno Navarro también en esta materia, es priorizar el "diálogo social", y pone el Consejo Navarro de Seguridad y Salud en el trabajo al servicio de éste. El consenso entre quienes participan en él funciona a pleno rendimiento en el seno del Consejo Navarro de Seguridad y Salud en el Trabajo. Un Consejo meramente informativo, cuyas reuniones duran escasamente una hora, ineficaz, formal y en el que las críticas, aportaciones y opiniones discordantes (como las de ELA) no se tienen en cuenta ni valoran lo más mínimo.

En contra de lo establecido en la norma, se reúne una sola vez al año, en lugar de cuatro, con la única y exclusiva finalidad de asignar a patronal, CCOO y UGT los fondos de formación provenientes de la Fundación para la prevención de riesgos laborales, que en la convocatoria de 2009 ha ascendido para cada una de las organizaciones a 164.000 euros.

El INSL, ajeno a dicho Consejo, se limita a poner en marcha todas aquellas iniciativas que fija la Estrategia Española de Seguridad y Salud Laboral, imperando el seguidismo a las políticas marcadas en el Estado Español.

Y esto no es todo. En el presupuesto del Gobierno de Navarra para 2010 se destina una cantidad de 1.532.500 euros a la prevención de riesgos laborales, 662.500 euros para los delegados de la CFN y los 870.000 euros restantes para programas preventivos.

Dicen que esos delegados y programas son para mejorar la situación y crear conciencia preventiva, pero ¿cuáles son los verdaderos resultados? No existe, no se ofrece ninguna información al respecto. Lo cierto es que los datos de siniestralidad y las condiciones de trabajo desde el punto de vista preventivo no han sufrido cambio alguno desde su existencia. En definitiva, nada de nada y más de lo mismo; ninguna inspección efectiva, nada en cuanto a perseguir el fraude. Eso sí, más y más financiación con dinero público.

Todos los integrantes de la citada mesa de concertación están de acuerdo con este modelo, aunque signifique hacer dejación de la materia preventiva.

Este 28 de abril, ELA exige un cambio radical en las políticas públicas de seguridad y salud laboral. Unas políticas que eliminen la precariedad e impulsen empleo digno y de calidad para la clase trabajadora. No aceptamos que nuestra seguridad y salud se subordinen al objetivo de maximizar los beneficios empresariales.

**STOP al negocio
con nuestra salud**